



Ale honetan

Aurkezpena 1

Ikerketak

Josu Perales Gaitasun estrategikoa: gaia zertan den 3

Amaia Arauzo, Xabier Arauzo Tokiko hizkera bizirik dagoen herri baten errealitateaz 54

Bestelako lankidetzak

Aitor Ogiza Hamar galdera 4. mailako irakasleari 71

HIZPIDE

EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA



HARPIDETZA-ORRIA

Izen-deiturak:

Kalea:

Zenbakia:

Herria eta Pk:

Probintzia:

Hizpide aldizkaria jaso nahi dut etxean. 2010ean hiru ale: N.A.N.:
13,80 €. Honela ordainduko dut:

Kontu korronte bidez

Bankua edo Aurrezki-Kutxa:

Sukurtsala:

Zenbakia:

Transferentziaz (Kutxa 2101.0381.01.0003069002)

HABEren izenean luzaturiko txkekez



Helbide honetara bidali behar da:
HIZPIDE aldizkaria
Vitoria-Gasteiz, 3
20018 Donostia

Formulario honetako datuak fitxategi automatizatu batean bilduko dira, HABEk aldizkaria jasotzeko eskabideak kudeatu ahal izateko. Fitxategi datuetara sartzeko, datuak aldatu edo deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, HABEra jo dezakezue. Vitoria-Gasteiz kalea, 3-6, 20018 Donostia.



Aurkezpena

Hauxe duzu, irakurle, Hizpide aldizkariaren 73. alea. Begira diezaiogun, ohi bezala, mamiari.

Ikerketak. – Lehenengo artikulua izenburua da “*Gaitasun estrategikoa: gaia zertan den*”. Josu Peralesen eskutik dator kigu. Hainbat hiztunek era eraginkorrean komunika dezakete hizkuntz baliabide gutxiren jabe izanik. Nola moldatzen dira, ordea, ehun, berrehun hitzi horrenbesteko etekina ateratzen? Eskuak mugituz, imintzioak eta keinuak eginez, besteak beste. Orobat, isiluneak, errepikak, itzulinguruak ere baliatzen dituzte. “Erraldoi” hitza ezagutzen ez badute “oso handia” esango dute horren orde. “Baratze emankorra” esaten ez badakite “lur ona” esango dute. Hiztun horiek badira hizkuntza erabiltzeko gaitasun estrategikoaren jabe. Gaitasun estrategikoa gaitasun komunikatiboaren baitan bereizten den osagaietako bat da. Eta komunikazioan duen garrantzia aho batez aitortzen zaio hizkuntz irakaskuntzaren alorrean.

Bi atal nagusitan dago artikulua ardaztuta. Lehenengoan, gaiaren alderdi teorikoak aztertzen dira. Halatan, terminologian dauden hutsuneei erreparatzen zaie lehenik. Izan ere, kontzeptuen arteko mugak nahi baino lausoago ageri dira gaia jorratzen duten argitalpenetan. Komunikazio-estrategien eta ikas-estrategien arteko aldeak, esaterako, ez dira beti behar bezain argi bistaratzen. Hemen, zailtasun horiek agerian jarritakoan, gaitasun estrategikoa ebaluazioaren alorrean zer-nolako inplikazioak dituen ere hartzen da aztergai. Gaitasun estrategikoa osagai da gaitasun komunikatiboa ispilatzen duten hainbat eredutan. Baina, aparteko izaera du gainerako osagaiekin alderatuta. Eta kontuan hartzekoa da hori ebaluaziori begira.

Ez dago aho bateko erantzunik ikertzaileen artean, komunikazio-estrategiak ikasgelan irakastea komeni ote den galdetzen denean. Artikulu honetan, irakastearen alde ageri da erabat egilea baita ikasgelan erabil litezkeen hainbat jarduera azaldu ere, komunikazio-estrategiak nola irakas daitezkeen ikusarazteko. Ez dira falta komunikazio-estrategiak sailkatzeko egin diren hainbat taxonomia ezta Europako Erreferentzia Markoan gaiaz zer aipatzen den ere.

Artikulua bigarren atalean ikerketen alorra jorratzen da. Eta euskaraz egindako ikerketa-ahalegin xume baten zertzeladak ere eskaintzen dira. Ondorio nagusia da merezi duela gaitasun estrategikoa euskarari dago-kionez oso aintzat hartzea, ikertzen jarraitzea eta ikasgeletan kontuan hartzea.

Bigarren artikulua izenburua da “*Tokiko hizkera bizirik dagoen herri baten errealitateaz*”. Egileak dira Amaia Arauzo eta Xabier

Arauzo. Amaiak Igorreko udaletxean euskara-teknikaria da eta Xabier Eusko Jaurlaritzako Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzako hizkuntza-normalizazioko teknikaria.

Asko dira Euskal Herrian hizkuntza normalizazioaren bidean lanean ari diren udalerriak eta asko dira, halaber, baliabide ekonomikoak zein pertsonalak gorabehera, euskararen normalizazioa berreskuratzeko asmotan, gaiaren inguruan egiten diren era guztietako ahaleginak. Artikulu honetan, egileen asmoa eta helburua da ekarpen txiki bat egitea tokiko hizkera bizirik dagoen herri baten berezitasunetik abiatuta. Horretarako, Bizkaian, Igorreko herrian dagoen egoera soziolinguistikoari aztertzeari ekin diote etorkinak eta euskara aztergai harturik. Baina, euskara esatean, tokian tokiko euskara dute artikulugileek jomuga horixe baita nagusiki Igorren erabiltzen dena. Etorkinek euskarari buruz dituzten usteak aztertzen dira artikuluan. Ondorioa da tokiko euskara tresna guttiz baliotsua dela etorkinak bertakotzeko eta sustraitzeko eta ez diola horrek kalterik egiten euskara batuari. Aitzitik, bide ezin egokia izan daitekeela sinergiak lortu eta, azkenik, euskara batua bera ere indartzeko.

Irakasle esperientziaduna da Aitor Ogiza euskalduntze-alfabetatzean. Ermuko AEK-n ari da. Aitorren ekarpena euskalduntzearen 4. mailari buruzkoa da eta idatzi duen artikuluari jarri dion izenburua da “*Hamar galdera 4. mailako irakasleari*”. Izan ere, dezenteko jakin-mina piztu du euskalduntze-alfabetatzearen 4. mailak. Lana, gogoeta teorikoei muzin egin gabe, ikuspegi praktikotik bideratuta dator batez ere, zeren eta oso kontuan harturik baitago ikasgelako egunoroko jarduna.

Artikuluaren egileak 4. mailaren goi-barrenak ezartzen dituzten hamar galdera egin ditu baita erantzunak eman ere. Horrela bada, “Zer da 4. maila” galderatik hasi eta “Zelan egokitzen zaio *on line* formatuari” galderaraino arin, era errazean eta ulerkorrean jorratu ditu maila horren ipi-apa guztiak. Hona hemen Aitorrek xehatutako gaiak 4. mailaren argigarri: mailaren definizioa; maila horretan jardun behar duen irakaslearen prestaketaren nolakoa; ikasleria-mota; ordutegia, erritmoa; helburuak eta bitartekoak. edukiak; eskolako jardunbidea; proiektua; ebaluazioa; garatu beharreko eremuak; eta, lehen aipatutako *on line* formatua.

Horra hor, bada, alearen mamia. Hizpidek probetxuzkoa izan dakizula opa dizu.